

MARTXOAK 8

# Ogibideek generorik ba ote?



**STEE-EILAS** 

***“Emakumeei historikoki izendatu zaizkien lanen jatorria ez da naturala, soziala baizik”***

Legeek berdintasuna bermatzen dute, baina praktika sozialak, mentalitateak eta pertsonen jarrerak ez dira aldatzen lege hutsekin. Horregatik beharrezkoa da zuzenean eskuartzea, oraindik ere emakume izateagatik pairatzen den diskriminazioa onartuaz, berau ezabatzeko. Hezkuntzak izan behar du neska-mutilen aukera berdintasunak bermatuko dituen oinarrizko zutabeetariko bat.

Beste herrialdeetako esperientziak erakusten digute eskola orientazio ez diskriminatzailea oinarrizko baldintza dela gaur egun ditugun desoreka horiek zuzentzeko. Beraz, beharrezkoa da, ikasketa eta lanbide aukeraketak sustatzea neska- mutilen gustu, gaitasun eta trebetasunak aintzat hartuz, gaur egungo lanbide bereizketarekin apurtuz.

Horregatik Martxoaren 8ko kanpainaren helburua da gizarteko esparru desberdinetan (ikastetxeak barne) ezkutuan dagoen sexismoa azalaraztea.

Gaur egungo egoera aldatzeko beharrezkoa da denon inplikazioa; neska eta emakumeak egoera txarragoan jartzen dituen gizartearen isla denez hezkuntza sistema, hau ere aldatu beharra dago.



# **OGIBIDEEK GENERORIK BA OTE?**

*Harimaguada programatik egokitutako materiala*

## **HELBURU OROKORRA**

Edozein pertsona, sexuari erreparatu gabe, edozer lanbidetan aritzeko gai dela ulertzea.

### **Helburuaren azalpena:**

Lan arloan dagoen desberdintasuna eguneroko errealitatea da eta beraz egunerokotasunean gela barruan eta kanpoan lantzeko arloa da. Adin hauetako neska –mutilek inguruan duten errealitatearen bidez ikasten dute. Errealitate diskriminatzaile hau ezagutarazi behar diegu, azterketa kritikoa sustatuz eta lan egoera ez estereotipatuak eskainiz.

### **HELBURU ZEHATZAK:**

- Ogibide desberdinei buruz hausnartzea.
- Femenizatuta edo maskulinizatuta dauden ogibideetaz ohartzea.
- Ogibide ez estereotipatuez jabetzea.

### **1. JARDUERA: Ogibideen zerrenda eginez**

**Materiala:** STEE-EILASek bidalitako kartela, arbela.

**Taldekatzeta:** Talde handia

1. Kartelean azaltzen diren ogibideak zeintzuk diren aipatu denon artean.
2. Ogibide horiek neskek, mutilek edota biek beteko dituzten galdetu. (*Adib: igeltseroa zer izango da, neska, mutila edo bietako edozein. Galdera egiteko modua garrantzitsua da, zeinek betetzen duen galdetu ezkerro gaur egun normalean betetzen duen generoaren erantzuna emango dutelako, aldiz zeinek bete dezakeen edo hipotesi moduan kartel zehatz honetan zeinek beteko duen galdetzean aukera gehiago ematen dira.*)



3. Aurreko puntuan eztabaidarik sortu ezean, berau bultzatuko dugu:

- Zer behar da lan hau egiteko?
- Zergatik egin dezake lan hau mutil batek eta ez neska batek? (edo alderantziz).
- ...

## **2. JARDUERA: Ogibideen estereotipoak apurtuz, Elkarrizketa**

**Materiala:** Erantsitako fitxa (handitzea gomendatzen da)

**Taldekatzea:** Talde handia

Elkarrizketarako gidoia:

- Zein da azaltzen den pertsona bakoitzaren lanbidea?
- Zenbat emakume daude? Eta zenbat gizon?
- Emakumezkoek betetzen dituzten lanbideak aipatu. Gizonezkoek betetzen dituzten lanbideak aipatu. Aurreko elkarrizketan agertutakoarekin alderatu.
- Azaltzen diren lanbideetatik bakoitzak zein duen gustukoen eta zergatia galdetu.

## **3. JARDUERA: Inkesta, zertan lan egiten dute zuen gurasoek?**

**Materiala:** Arbela, papera

**Taldekatzea:** Talde handia eta talde txikia

Talde handian gurasoen lanbideei buruz hitz egin. Beraien lanari buruz jakin nahi dituzten galderak bota eta denon artean adostasunera iritsi bizpahiru aukeratzeko. Adib:

- Zein da zure lanbidea?
- Gustukoa duzu?
- Zergatik?

Gelan inkesten emaitzez hitz egin (arbelean sailkatu ditzakegu):

- Amen lanbideak, aiten lanbideak
- ...



#### **4. JARDUERA: Bisita: Emakume eta gizon banak beraien lana azalduko digute.**

Emakumezko bat eta gizonzko bat gonbidatu (ahal izanda bakoitzaren lanbidea ez dadila lotuta egon genero estereotipoekin adib: gizonzko ile-apaintzailea, erizaina...; emakume autobus txoferra, elektrikari...) beraien lana gelan azal diezaguten.

- Galderak prestatu.
- Ahal bada demostrazio bat egin diezagutela
- Bisitaren ondorioak atera eta balorazioa egin.

#### **5. ANTZERKIA edo TXONTXONGILOAK.**

**Materiala:** Papera, arkatza eta antzezteko behar dena.

**Taldekatzea:** Talde txikiak

Irakasleak berak edo umeekin batera, fikziozko egoerak antzezteko hainbat gidoi egin ditzake.

**Gidoi posiblea:**

Kotxe batean gizon bat doa; bat-batean zarata bat entzun eta kotxea gelditzen da.

- Gizona: Ezinezkoa da! Berriz ere apurtu da. Mekanikoak esan zidan konpondu zuela eta berri bezala zegoela. Presaka nabil eta gainera hemendik ez da inor pasatzen. Zer egingo dut? Hor dator ume bat, ea honek badakien. Aizu, ba al dakizu non aurkitu dezakedan mekaniko bat auzo honetan?
- Umea: Zer da mekanikoa?
- Gizona: Kotxea konpontzen duena.
- Umea: Ba ez, ez dakit, ni ez naiz auzo honetakoa.
- Gizona: Eskerrik asko hala ere, agur.
- Umea: Agur
- Gizona: Zer egingo dut. Aireportura joan behar dut alabaren bila eta ez naiz garaiz iritsiko. Hor dator emakume bat. Aizu, Mekanikorik ba al dago auzo honetan?



- Emakumea: Ba bai, nire iloba Ainarak Tailer bat du eta oso ona da gainera.
- Gizona: Nola, neska bat? Nola konponduko du neska batek nire kotxea?
- Emakumea: Hor geratu beharko duzu zure kotxe apurtuarekin, auzo honetan ez dagoelako beste tailerrik.
- Gizona: Beno, ez dut ezer galtzen joatearekin, baina ez dut uste konpontzeko gai izango denik.
- Emakumea: Han da, kale hau zuzen jarraitu eta ezkerretara. Suertea izan dezazula!
- Gizona: Ia horrela den baina egia esan ez naiz fio. (Tailerrera iritsi da)  
Egunon!
- Ainara: egunon!
- Gizona: zu al zara mekanikoa?
- Ainara: bai, zer behar duzu?
- Gizona: Begira, nire kotxea apurtu egin da eta presaka nabil, begirada bat emango al diozu?
- Ainara: Noski, non dago?
- Gizona: Hementxe bertan. (ikusleei begira) Ez dut uste neska bat nire kotxea konpontzeko gai izango denik.
- Ainara: (Konpontzen balebil bezala eginez) Listo, konponduta. Sartu barrura eta martxan jarri.
- Gizona: (Ikusleei) Ez naiz fio, ez naiz fio...(martxan jarri du). Hau bai ezustekoa, zoragarria, ze ondo dabilen, inoiz baino hobeto. Eskerrik asko! Mekaniko handia zara, sekula ez dut esango neskek ezin dutela mekanikoak izan. Agur!
- Ainara: Agur, eta etorri behar duzun guztietan.



# OGIBIDEEK GENERORIK BA OTE? LH eta DBH

## SARRERA

Lan arloan dagoen desberdintasuna eguneroko errealitatea da eta beraz egunerokotasunean gela barruan eta kanpoan lantzeko arloa da. Adin hauetako neska –mutilak inguruan duten errealitatearen bidez ikasten dute. Errealitate diskriminatzaile hau ezagutarazi behar diegu, azterketa kritikoa sustatuz eta lan egoera ez estereotipatuak eskainiz. Era berean, ikasleei beraien gaitasun eta gustuak garatu ditzaten lagundu behar diegu neska ala mutilak diren kontutan hartu gabe.

## KARTELAREKIN LANTZEKO AKTIBITATEAK HELBURUAK:

- Ogibide desberdinei buruz hausnartzea.
- Ogibide desberdinetan emakumeek jokatzen dituzten roleei buruz ikertzea.
- Femenizatuta edo maskulinizatuta dauden ogibideetaz ohartzea.

## JARDUERAK:

### 1. JARDUERA: Ogibideak

**Materiala:** STEE-EILASek bidalitako kartela, orri txuri bat, boligrafoa edo arkatza.

### Metodología:

1. Irakasleak ikasleriari orri zuri baten bi zutabe egiteko eskatuko dio.
2. Arbelean edo ondo ikusten den toki baten STEE-EILASen kartela jarriko du?.



3. Pentsatzeko denborarik eman gabe, irakasleak ogibide zerrenda irakurriko du. Ikasleek ogibide hori emakume batek edo gizon batek garatzen duen arabera zutabe baten edo bestean jarriko du.

4. Komunean jarriko da. Idazkari bat aukeratu bada, honek arbelean apunta dezake.

5. Ondorioak:

- Nola kontsideratzen da ogibide bakoitza?
- Diferentzia esanguratsuak al daude?. Zein ogibidetan?
- Zergatik ematen dira diferentzia horiek?
- Desagertu behar dira edo hobe da diferentzi horiek mantentzea?
- Zer egin daiteke?

6. Ondorioak atera ostean, [www:emakunde.es](http://www.emakunde.es) zifrak2006an ateratako datuekin konparatuko dira.

## OGIBIDEEN ZERRENDA

Ingenieroa	Medikua	Astronauta	Filologoa
Ile-apaintzailea	Erizaina	Telefonista	Itzultzailea
Irakaslea	Atezaina	Elektrizista	Politikaria
Iturgina	Diseinadore Grafikoa	Dendaria	Biologoa
Kajeroa	Informatikoa	Enpresaria	Ekonomoa
Garbitzailea	Albaiteroa	Kamioilaria	Soziologoa
Nekazaria	Artzaina	Harakina	Farmazeutikoa
Pilotua	Igeltseroa	Margolaria	Idazlea
Azafata	Abeslaria	Musikaria	Fisikoa
Arrantzalea	Arrain-saltzailea	Ogigilea	Geologoa
Sukaldaria	Zerbitzaria	Kirolaria	Teologoa
Etxe saltzailea	Arkitektoa	Kimikaria	Geografoa
Jostuna	Argazkilaria	Arotza	Metereologoa
Dantzaria	Psikologoa	Futbolaria	Arkeologoa
Igerilaria	Kale garbitzailea	Mekanikoa	Artista
Abokatua	Dentista	Kazetaria	Elektronikoa
Meatzaria	Topografoa	Basozain	Bitxigilea
Administraria	Idazkaria	Txoferra	....



## 2. JARDUERA: Zer aldatu da?

**Materiala:** STEE-EILASek bidalitako kartela, orriak, boligrafoa edo arkatza.

### **Metodologia:**

1. Irakasleak, ondorengo testua irakurri edo banatuko du:

#### **KOTXE KONPONKETA M. ETA S.**

*Marta eta Sonia Amezketan bizi diren bi neska dira. Hogeita hogeita hamar urte artean daude. Biek teknikoa den karrera bat bukatu dute zientzia, matematika eta kotxen mekanika menperatuz. Harrez gero Roberto Santxezen tailerrean lan egin dute. Zazpi urteko esperientzia eta kotxen mekanika arloan ospe handia dute.*

*Marta eta Sonia bere tailer propioa irekitzeko moduan daude. “Kotxen konponketa M. eta S.”. Negozioa martxan jartzeko adina diru aurreztu dute. Soniak garaje bateko jabearekin telefonoz hitz egin du eta ea alokatuko zion galdetu dio. Jabeak zera erantzun dio: “Bai, noski!. Esaiozu jabeari etor dadila nahi duenean. Alokatzeko irrikan nago.”*

*Arratsaldean Sonia gizonarekin hitz egitera joan da. Honek horrela jaso du: “ Non dago jabea?”. Soniak berarentzako alokatu nahi duela esan dionean, jabeak parra egin eta harrিতuta erantzun dio: “Zer? Zuk zeuk alokatu nahi duzula garajea? Hau parra!”*

*- Kotxen mekanikoa naiz. Titulua eta zazpi urteko esperientzia ditut eta gainera, hemen duzu fidantzarako dirua.”*

*- “Begira andereño, ez dizut garajea alokatuko. Dirua galduko nuke. Zuk sekulan ez duzu aterako alokairua ordaintzeko adina diru. Herri honetan emakumeek irekitako garaje batera inork ez du automobila ekarriko”. Hankak lurrean jarri!*

2. Pentsatzeko denboratxo bat eman eta gero, bai talde txikitan edota kopuruaren arabera talde handian ondorengo galderak planteatuko dira:

1. Horrelako egoerak gertatzen al dira?
2. Nola imajinatzen dituzue Sonia eta Marta?



3. Demagun irakurritako egoera gertatu egin dela. Nola sentituko zinateke Sonia izango bazina?
4. Zeintzuk dira garajearen jabearen aurreiritziak Soniarekiko?
5. Zeintzuk dira garajearen jabearen aurreiritziak emakumeekiko?
6. Aurreiritzi hauek nola egiten diete kalte Sonia eta Martari? Eta emakume guztiei?
7. Aurreiritzi hauek nola egiten diete kalte Amezketako biztanleei? Eta gizonen oroar?

3. Saioa bukatzeko ondorengo bi galdera bota daitezke:

- Zer egiten du zure aitak, aitonak egiten ez zuena emakumeen gauzak zirela pentsatzen zuelako?. Zer egiten duzu zuk, zure aitak egiten ez duena?

- Zer egiten du zure amak, amonak egiten ez zuena gizonen gauzak zirela pentsatzen zuelako?. Zer egiten duzu zuk, zure amak egiten ez duena?

4. Ezer bururatuko ez balitzaie polita izan daiteke etxera eramatea eta erantzunak ekartzea.

*Bigarren jarduera hau rol jokoarekin osa daiteke ikasleentzako paperak hauek izan daitezkeelarik. Jokoa taldeka egin daiteke non bi ikasle protagonista izango diren eta hirugarren batek apunteak har ditzaken.*

## **ROL JOKUA**

### **Marta**

*Auto bat konpontzeko duzun gaitasunaz oso seguru zaude. Lana egiten zenuen aurreko garajearen 400 kotxe behintzat konpondu zenituen. Oso kexa gutxi jaso zenituen. Jabeak, autoak konpontzeko berak kontratatutako mekanikoen artean trebeenetariko bat zinela esan zizun.*



## **Jaime**

*Herrian garaje berri bat ireki dutela jakin duzu: “Autoen konponketa M. eta S.”. Pozik zaude herriko beste tailerretako mekanikoek sekulan ez dutelako zure autoa ondo konpondu. Telefonoz deitu eta autoa uzteko gelditzen zara. Eramaten duzunean emakume bat topatzen duzu. Harrituta gelditzen zara. Ez duzu nahi emakume batek zure kotxea konpontzerik..*

*Rol jokoan “M. eta S.” tailerrean kotxea ez uzteko arrazoiak defenditzen saiatu behar duzu.*

### **Komunean jartzeko ondorioak:**

- Zer argudio erabili dira?
- Errepikatzen al dira argudioak?
- Argudio horiek beste egoeretan aplikatu ohi dira. Zeintzuetan?
- Zure inguruan baten bat ezagutzen al duzu noizbait diskriminatua sentitu dena emakumea izateagatik?



